

Egile gonbidatua

Zirrarek egundoko garrantzia dabe gure bizitzetan. Aldi eta leku guztietan, eta are gehiago pandemia aldi honetan, kudeaketa emozionala bereziki garrantzitsua da ikastetxeetan, haurtzaro eta gaztaroan. EBI sareko elizbarrutiko ikastetxeetan jabetzen gara egoeraz eta aitzindari gara heziketa alkarte osoarentzat osasun eta ongizatearen iturri izan

daitez, zirrarak kudeatzen laguntzen dauan LEK ereduari (Lotura Emozional Kontzientea) dago-kionez.

Holan azaltzen dau Roberto Aguado psikologo eta EBiko hezitzaileak.

Begirada, hartu-emonerako eredu

Roberto Aguado Romo

JARRAITU IRAKURTZEN

Irakurketa hezkuntzaren motorra, oinarria da. Eta ikasleen artean sustatzea, eguneroko zeregina. EBIn topera ahalegintzen gara irakurketaren gozamenak oihartzuna izan dezan ikasleen artean. Liburuaren Nazinoarteko Eguna dala eta, aurrera eroandako ekimenetako batzuk nabarmendu doguz.

GEHIAGO IRAKURRI

Liburuaren Nazinoarteko Eguna

'Jazotakoa Jaso' bideo-lehiaketa: irabazleak

Laugarren urtez jarraian, bideo-klipen lehiaketan parte hartu dabe EBI sareko 16 ikastetxeek. 2021ean, Bake eta Konfiantzaren Nazinoarteko Urtean, Bilboko Elizbarrutiko Kultur Erakundeen Mahaia-ak proposatu dauan gaia hau da: 'Bakea, bizikidetzeta eta adiskidetzeta'. Hona hemen, irabazleak.

JAZOTAKOA JASO

GEHIAGO IRAKURRI



Ondarroa heziketa-erreferentzia itsasorako lanbide-irteeran

Antiguako Ama Arrantza Eskolak (Ondarroako eskolan milaka marinel prestatu dira) haren heziketa izaera sendotu dau.

GEHIAGO IRAKURRI



'Inspira STEAM': etorkizuneko emakumeak inspiratzeko plana

Deustuko Unibertsitateak sustatuta, 'Inspira STEAM' programa amaitu dau Avellaneda Ikastetxeak. Zientzia eta teknologia nesken artean sustatu nahi dau.

GEHIAGO IRAKURRI



EBI, HEDABIDEETAN

Zulaibar Ikastegia: hezkuntza-garapena eta barrikuntza

EBIko ikastetxe eta ikastolak Bizkaiko hezkuntzan erreferentzia dira. Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegia Bizkaia Irratian egon da.

GEHIAGO IRAKURRI